



**Busturiko
Udala**



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiako Udaletxea

EGUNA / FECHA: 16/10/2013

HASIERA / INICIO: 20:20

AMAIERA / FINAL: 20:30

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATESA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

Jone Miren Arrasate Urkiaga (Bildu)

Berezi Echebarría Rivas (Bildu)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko
Udala



Akta

Busturiako Udaletxean, aipatu egun eta orduan, jarduneko Alkate Andrea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate anderearen aginduz, zinegotzien artean behar adina denboraz banatutako gai ordenaren arabera ekin zitzaion bilerari, eta honako erabakiak hartu ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose las siguientes propuestas de acuerdo:

1.- AURREKO SAIOKO AKTA.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zituen 2013ko urriaren 2ko saioetako akta.

1.º.- ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 2 de octubre de 2013.

2.- HILERRIKO MURRUA KONPONTZEKO LANAK.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu udal arkitecto aholkulariak, Galder de la Fuente Magaña, egindako obren egiaztapena-likidazioa, udal hilerriko harlangaitzezko murrua konpontzeko A. B.k burututako lanen gauzatzeari dagokiona (2013ko ustekabeko gastuak); likidazioa 40.738,28 €koa da.

2.º.- OBRAS DE REPARACIÓN DEL MURO EN EL CEMENTERIO.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la certificación de las obras-liquidación expedida por el arquitecto asesor municipal, Galder de la Fuente Magaña, en relación a la ejecución de las obras de reconstrucción del muro de mampostería en el cementerio municipal (imprevistos 2013) ejecutadas por A. B. y cuya liquidación asciende al importe de 40.738,28 €.

3.- PRESOAK HURBILTZEKO ANAGRAMARI BURUZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA.-

Euskal Autonomia Erkidegoan Gobernuaren Ordezkaritzak jarritako Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiko 183/2013 zenbakidun eta Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5. Epaitegiko 206/2013 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsoak ikusirik, Udaletzeko balkoian eta udal webgunean, hurrenez hurren, euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzeko ipinitako anagramak direla eta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen horiek kentzea, hala udal eraikinetik, nola webgunetik, Gobernuaren Ordezkaritzari lehen aipatutako auzi-errekurtsoetan atzera egin dezala eskatzearekin batera.

3.º.- RECURSOS CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVOS SOBRE ANAGRAMA DE ACERCAMIENTO DE PRESOS.-

Vistos los recursos contencioso-administrativos interpuestos por la Delegación del Gobierno en la Comunidad Autónoma del País Vasco Nº 183/2013 del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº3 de Bilbao y 206/2013 del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº5 de Bilbao, por la colocación en el balcón de la Casa Consistorial y en la página web municipal del anagrama sobre el acercamiento de los presos vascos a Euskal Herria, respectivamente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó retirar ambos emblemas, tanto del edificio municipal como de la página web, solicitando a la Delegación del Gobierno que desista de los recursos judiciales antes citados.

4.- ERROTULUAREN EZARPENA UDALETXEKO BALKOIAN.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez, Udaletxean "Giza eskubideak irtenbidea bakea, euskal presoak Euskal Herrira" dioen errotulua jartzea onartu zuen.

4.º.- COLOCACIÓN DE RÓTULO EN EL BalcÓN DEL AYUNTAMIENTO.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó colocar en la Casa Consistorial un rótulo con el siguiente lema "Giza eskubideak irtenbidea bakea, euskal presoak Euskal Herrira".



5.- ZURA ATERATZEKO LANDA-BIDEEN ERABILPENERAKO BAIMENAK.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen zura ateratzeko landa-bideen erabilpenerako baimenak hurrengo ematea:

- 1.- M. M. O. M.ri (6/13 Txost.), bere jabetzakoa den "Atxirika" mendiari dagokiona, 1. poligonoko 21. lursaila eta 16. poligonoko 69. lursaila, Atxirikeko bidea erabiliz, 523,60 estereotan.
- 2.- M. G. anaiei (7/13 Txost.), euren jabetzakoa den Irezagorri-Uspaso mendiari dagokiona, 14. poligonoko 80., 154., 176. eta 177. lursailak, Mapeko bidea erabiliz, 431,20 estereotan.
- 3.- M. G. anaiei (8/13 Txost.), euren jabetzakoa diren Irezagorri mendiari eta beste batzuei dagokiena, 1. poligonoko 100. eta 101. lursailak eta 13. poligonoko 52., 88. eta 89. lursailak eta 14. poligonoko 109. eta 107. lursailak, Bollegiko bidea erabiliz, 389,62 estereotan.

5.º.- LICENCIAS DE UTILIZACION DE CAMINOS RURALES PARA LA SACA DE MADERA.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a:

- 1.º.- M. M. O. M. (Exp. 6/13), correspondiente al monte "Atxirika", de su propiedad, parcela 21 del polígono 1 y parcela 69 del polígono 16, utilizando el camino de Atxirike, en un número de 523,60 estéreos.
- 2.º.- M. G., Hnos. (Exp. 7/13), correspondiente al monte Irezagorri-Uspaso, de su propiedad, parcelas 80, 154, 176 y 177 del polígono 14, utilizando el camino de Mape, en un número de 431,20 estéreos.
- 3.º.- M. G. Hnos. (Exp. 8/13), correspondiente al monte Irezagorri y otros, de su propiedad, parcelas 100 y 101 del polígono 1, parcelas 52, 88 y 89 del polígono 13 y parcelas 109 y 107 del polígono 14, utilizando el camino de Bollegi, en un número de 389,62 estéreos.

6.- INGURUMEN HOBEKUNTZA PLANA.-

Alkate andreak M. A.k egindako lanaren berri eman zion Batzordeari; hau da, udalbatza honetan sei hilabetez Ekoscan Kudeatzaile lanak burutu dituela eta, egindako lanaren emaitza hurrengo epigrafeak dituen dokumentuaren lan-keta izan dela:

- Ingurumen konpromisoa.
- Baldintza administratiboen protokoloa; Legescan galdetegia.
- Busturiako Udalaren ingurumen egoeraren ebaluazioa.
- Busturiako Udalaren ingurumena hobetzeko plana.
- Legescan amaierako txostena.
- Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Mendieta jauna egindako lanagatik zoriontzia.

6.º.- PLAN DE MEJORA AMBIENTAL.-

La Sr. Alcaldesa dio cuenta a la Junta de Gobierno Local del trabajo realizado por I. M. A., que durante seis meses ha realizado labores de Gestor Ekoscan en esta corporación, y que ha dado como resultado la elaboración de un documento que contiene los siguientes epígrafes:

- Compromiso medioambiental.
- Protocolo de requisitos administrativos; cuestionario Legescan.
- Evaluación de la situación medioambiental de la Casa Consistorial de Busturia.
- Plan de mejora ambiental de la Casa Consistorial de Busturia.
- Informe final Legescan.
- Informe director de Administración Ambiental.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó felicitar al Sr. Mendieta por el trabajo realizado.

7.-PROKURADOREEN IZENDAPENAK.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Alkate jaunari ahalmena ematea jarraian agertzen diren prokuradoreak ahalordetzeko, San Antonioko kokalekuaren gain Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Sukarrietako Udalaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan Udal hau ordezkatzeko dutenak:

Madrilgo prokuradoreak:

- A. de D. G. Andrea
- N. de D. G. Jauna
- A. V. Q. Jauna

7.º.- NOMBRAMIENTO DE PROCURADORES.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó facultar a la Sra. Alcaldesa para el otorgamiento de poderes a los procuradores que se indican a continuación, que representarán a este Ayuntamiento en el recurso contencioso-administrativo contra la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Sukarrieta, en el asunto del enclave de San Antonio:

Procuradores de Madrid:

- Dña. A. de D. G.
- D. N. de D. G.
- D. A. V. Q.



Busturiko
Udala



Akta

8.- ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN BAJA.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen A. R. B. behin-behinekoz kontratatzea A. L. L. administrari laguntzailearen baja estaltzeko.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen etorkizunean mota honetako egoerak estaltzeko Administrari Laguntzaile lanposturako lan-poltsa sortzea.

8.º.- BAJA AUXILIAR ADMINISTRATIVA.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó proceder a la contratación temporal de A. R. B. para cubrir la baja de la auxiliar administrativa A. L. L.

Asimismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó crear una bolsa de trabajo del puesto Auxiliar Administrativo para cubrir este tipo de circunstancias en el futuro.

9.- HIRIGINTZA-BAIMENAK.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten tekniko eta juridikoak ikusita, aho batez onartu zuen honako baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

1.- San Kristobal 13.eko auzokoen erkidegoa (44/13 Txost.), San Kristobal auzoko 13.eko teilatu-hegala margotu eta eroritako lauza txikiak jartzeko, 2.075 €ko aurrekontuarekin.

2.- J. M. A. C. (43/13 Txost.), Axpe auzoko 49.eko bere jabetzakoa den murruren gaineko itxiera perimetrala aldatzeko, 2.280 €ko aurrekontuarekin.

9.º.- LICENCIAS URBANISTICAS.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes técnico y jurídicos emitidos, por unanimidad, acordó conceder las siguientes licencias que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en los mismos, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

1.º.- Comunidad de vecinos de San Cristóbal 13 (Expte. 44/13), para pintar alero y colocación de plaquetas caídas, en el barrio de San Cristóbal, n.º 13, con un presupuesto de 2.075 €.

2.º.- J. M. A. C. (Expte. 43/13), para cambiar el cierre perimetral de encima del muro de su propiedad, en el barrio de Axpe 49, con un presupuesto de 2.280 €.

10.- HIRIGINTZAKO ARAU-HAUSTEAK LARRAGON.-

Tokiko Gobernu Batzordeak G. O. A.k aurkezturiko idazkiaren berri izan zuen, Larragoko eremuan baimenik gabeko lanei eta saneamendu isuriei buruzkoa, arduraduna M. A. izanda.

Gai horren inguruan Udal Arkitekto Aholkulariak eta Idazkariak eginiko txostenak ere irakurri ziren.

Horietatik ondorioztatzen da hirigintzako arau-hausteen inguruko Batzordearen bi txosten daudela 2002. urtean (etxe aurrefabrikatu baten ezarpenagatik) eta 2012. urtean (beste etxe aurrefabrikatu baten ezarpenagatik).

Lehenbiziko txostenean, 2003ko urtarrilaren 10ean karabana kentzeko exekuzio subsidiarioa onartu zen, eta baimena eskatu zitzaion Epaitegiari jabetza pribatuko lursailen sartzeko eta karabana kentzeko, espediente judiziala iraungita zegoela.

Bigarrean, lanak eteteko eta sustatzaileari berauek legezatzeko eskatzea adostu zen, baina gaur arte ezin izan zaio akordio horren berri eman, beraz, ediktuen bidez jakinarazi da iragarki bat Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidalita eta iragarki-taulan jarrita.

Hori guztia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen:

1.- Berriz ere baimen judiziala eskatzea Alkatezak 2003ko urtarrilaren 10ean hartutako akordioa gauzatzeko; akordioak horrela zioen hitzez hitz:

“Dekretu honen bidez, gaur bildutako Informazio Batzordearen ondoko ebazpena onartzen eta be-

10.º.- INFRACCIONES URBANISTICAS EN LARRAGO.-

La Junta de Gobierno Local tomó conocimiento del escrito presentado por G. O. A. sobre obras sin licencia y vertido de saneamiento en la zona de Larrago, cuyo responsable es M. A.

También se dio lectura a los informes emitidos al respecto por el Secretario y el Arquitecto Asesor Municipal.

De ellos se deduce la existencia de sendos expedientes por la comisión de dos infracciones urbanísticas en los años 2002 (por la instalación de una casa prefabricada) y 2012 (por la instalación de otra vivienda prefabricada).

En el primer expediente el 10 de enero de 2003 se acordó la ejecución subsidiaria de la retirada de la caravana y se solicitó autorización al Juzgado para la entrada en el terreno de propiedad particular y proceder a su retirada, habiendo caducado el expediente judicial.

En el segundo, se adoptó el acuerdo de suspender las obras y requerir a la promotora para que legalice las obras, sin que haya sido posible hasta la fecha notificarle este acuerdo, por lo que se ha procedido a su notificación por edictos enviado anuncio al Boletín Oficial de Bizkaia y colocación en el tablón de anuncios.

A la vista de todo ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

1.º.- Solicitar nuevamente la autorización judicial para la ejecución del acuerdo adoptado por la Alcaldía el 10 de enero de 2003 por el que acordó textualmente que:

“Por el presente Decreto apruebo y ratifico el siguiente dictamen de la Comisión Informativa celebrada el



**Busturiko
Udala**



Akta

rresten dut: Udal honek M. S. A. Z. Larragon ezarritako karabana kentzeko emandako hilabeteko epea igarota, eskaera gauzatu barik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera horren exekuzio subsidiarioari ekitea, beharrezko baimen guztien eskurapena izapidetuta.”

2.- 2012. urtean burututako arau-hausteari dagokion izapide administratiboarekin jarraitzea.

Gaia eztabaidatu eta bozkatu bitartean, Zulueta zinegotzi jauna ez zen bertan egon, alderdi interesdun baten semea izateagatik.

Eta besterik gabe, Alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andereak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

Alkatea/La Alcaldesa,

Fdo: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

día de hoy: Habiendo transcurrido el plazo de un mes concedido por este Ayuntamiento a M. S. A. Z. para que procediese a la retirada de la caravana instalada en Larrago, sin que la haya hecho efectiva, la Comisión, por unanimidad, propuso proceder a la ejecución subsidiaria de dicha retirada, tramitando la obtención de cuantos permisos sean necesarios.”

2.º.- Continuar con la tramitación administrativa respecto a la infracción urbanística cometida el año 2012.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa en funciones dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez